




Liburutegiak

24



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Paradisuari forma eman beharko banio

Urkiri Salaberria Gracia

Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren
eta Lege Gordailuaren Zuzendaria

“ Zein da
liburutegiaren
beharra gure
bizitzan? Edo, esan
beharko genuke,
zein da bizitzaren
garapena
liburutegirik gabe?

Paradisuari forma eman beharko banio,
Liburutegi baten forma izango litzateke.

Liburu bat eskuetan euria kanpoan ari dela,
orriak pasatzean sortzen den zarata, papera
ukitzean sentitzen den testura, tinta berria
denean duen usaina edo orriaren ertzean
desgastatutako zatia beti inspirazioz beterik
den orri horietan, norberaren gela horren
goxotasuna berotasuna bilatzen dugunean,
pertsona bakoitzak bere barruan gordetzen
duen intimitatea.

Liburu hori berriro hartzea, gurasoen
herentzia gisa iritsi zaigun liburu bera,
beraien magalean esertzen ginenean gure
esku txikien emozio-molekulez betea, eta
gure seme-alabekin partekatzea orain beraiek
direla gure magalean.

Zein da liburutegiaren beharra gure bizitzan?
Edo, esan beharko genuke, zein da bizitzaren
garapena liburutegirik gabe?


Bizitzan, jaiotzen den haur bakoitzari bi opari
egin behar zaizkio: Hegoak eta Sustraiak. Eta
baita ere, guraso bakoitzak, izebak edo
osabak, aitonak edo amonak, bizilagunak...
oro har, senide bakoitzak familiara etorri
berri bakoitzari liburu bat oparitu beharko
lioke. Bere Paradisu Pertsonala osatzen
hasteko

Estatistikak




eLiburutegiko maileguak 2024an

Hileko banaketa



“2024an, 2023an baino 24.925 mailegu gehiago daude erregistratuta, eta igoera jarraituak izan dira hilero. Abuztua, urria eta Abendua dira jarduera handieneko hilabeteak, eta horrek urte-sasoi horietako joera finkatua berresten du.




Urteko maileguak

2016-2024 arteko bilakaera

Urteko guztizkoak eta hileko batezbestekoak

“ 2016an ezarri zenetik, eLiburutegiaren maileguak modu neurritsuan baina etengabe hazi ziren. 2020an, pandemiaren ondorioz, hazkunde izugarria izan zuten maileguek. Ondoren, mailegu-kopuruak moteldu egin ziren, eta, aurreko kopuruak bikoiztu arren, pixkanakako jaitsiera erakusten zuten. 2024an, aurreko goranzko joera hasi da berriz.




Hileko maileguak

2016-2024 arteko bilakaera

Hileko guztizkoak


“ 2020. urtea kenduta, konfinamenduko hilabeteetan ezohiko kopuru handiak erakusten baititu, ikusten da 2016 eta 2024 artean, batez besteko mailegu-bolumen handiena urrian, uztailean eta abuztuan izan dela, hurrenkera horretan.



Maileguak udalerrika


2024ko guztizkoak

“Mailegu gehien egin zituzten 25 udalerriek, 2024an, 104.407 liburu mailegatu zituzten; hau da, Euskadin erregistratutako mailegu guztien % 71,11 joan den ekitaldian.



Maileguak 1.000 biztanleko

Euskadiko udalerri guztien sailkapena, biztanleria kontuan hartu gabe.



“Mailegu gehien egin dituzten Euskadiko 20 udalerrietan 1.000 biztanleko, % 9,8 gehitu dira aurreko urtearen aldean.

Gehienak landa-eremuak edo tamaina ertaineko udalerriak dira, non mailegu-tasak bereziki handia izaten jarraitzen duen eta liburutegi-zerbitzua aisialdiko eskaintza garrantzitsuenetako bat den.

Maileguak 1.000 biztanleko

5.000 biztanletik gorako udalerrietan

“ Mailegu gehien egin dituzten 5.000 biztanletik gorako 20 herrietan, 1.000 biztanleko 95,44 mailegu izan dira; beraz, liburutegi-jarduera handiena duten 20 udalerrietan baino % 28,78 txikiagoa izan da.



Maileguak 1.000 biztanleko

10.000 biztanletik gorako udalerrietan

“Mailegu gehien egin dituzten 10.000 biztanletik gorako 20 herrietan, batezbestekoa 1.000 biztanleko 86,65ekoa izan da; hau da, liburutegi-jarduera handiena duten 20 udalerrietako batezbesteko orokorra baino % 34,59 gutxiago.


Biztanleriak gora egin ahala, irakurle aktiboenen eragin erlatiboa lausotu egiten da, eta aisialdiko eskaintzaren hazkundeak ere eragina du biztanleekiko mailegu-kopuruan.



Erabiltzaile berriak

2016-2024 arteko bilakaera

“ 2024an nabarmen igo da alta berrien kopurua, bigarren altuena konfinamendutik eta mailegu digitaleko zerbitzua abian jarri zenetik. Bilakaera horrek sendotu egiten du 2023an hasitako goranzko joera.




eLiburutegiko erabiltzaileen bilakaera

2016-2024 arteko bilakaera

“ 2024an, eLiburutegia zerbitzuak % 13,78 egin du gora erabiltzaile-kopuruan aurreko urtearen aldean, inoizko hazkunderik handiena jarri zenetik, konfinamendu-urtea kentzen badugu.

74.748


2024ko erabiltzaileak



Aleak eLiburutegian

Zerbitzua 2014an hasi zenetik

“eLiburutegiaren mailegu digitaleko zerbitzuak apustu irmoa egiten jarraitzen du irakurtzeko lizentzia berriak urtez urte etengabe sartzearen alde. Horrela, bada, azken nobedadeak Euskadiko irakurleen eskura daude, argitaletxeekin lortutako akordioei esker.



Mailegatuenak gazteleraz

2024ko datuak

“Gaztelaniaz gehien mailegatutako 12 liburuen artean, Portugaleteko Mikel Santiago autorea nabarmentzen da zeharo, bere thrillerrekin Euskadiko Irakurketa Publiko Sarearen 2.619 erabiltzaile erakarri baititu.



Liburua



e-pub




Audioliburua





El hijo olvidado

Mikel Santiago





Las hijas de la criada

Sonsoles Ónega




La grieta del silencio

Javier Castillo




Un animal salvaje

Joël Dicker





Todo vuelve (Todo arde 2)

Juan Gómez-Jurado




El mentiroso

Mikel Santiago




El infierno

Carmen Mola





En plena noche

Mikel Santiago




Los inocentes

María Oruña




El problema final

Arturo Pérez-Reverte




Entre los muertos

Mikel Santiago



Todo arde

Juan Gómez-Jurado



Mailegatuenak euskaraz

2024ko datuak

“Euskaraz gehien mailegatu diren 12 liburuen artean, Karmele Jaio gasteiztar idazle eta kazetaria nabarmentzen da hiru lanekin: guztira 761 mailegu dira.

Azpimarratzekoak dira rankingean Amets Arzallus eta Ibrahima Balde Miñanekin batera, ePub formatuan eta audioliburuetan. Liburu tradizionala da nagusi zerrendan.



Luburua



e-pub



Audioliburua



Maitasun kapitala

Karmele Jaio

486



33 ezkil

Miren Gorrotxategi

141



Maren

Alaine Agirre

108



Ahaztuen mendekua

Alberto Ladrón Arana


95



Miñan

Amets Arzallus
Ibrahima Balde

227



19 kamera

Jon Arretxe

118



Zein usan dute oroitzapenek?

Maddi Etxeberria

106



Aitaren etxea

Karmele Jaio

159



Amaren eskuak

Karmele Jaio


116



Azken etxea

Arantxa Urretabizkaia

105



Bar Gloria

Nerea Ibarzabal

92



Miñan

Amets Arzallus
Ibrahima Balde

94



Sarea zifratan



Sarea zifratan

2024ko Euskadiko Irakurketa Sare
Publikoaren errendimendu-adierazleak

2024an 2.815.185 ale eraman ziren maileguan;
2023ean, berriz, 2.618.491. 41.898 pertsona izan ziren
liburutegietako bazkide. Guztira, 1.015.409 pertsonak
dute EIPSren erabiltzaile-txartela. Mailegu-hartzaile
aktiboak 243.755 izan ziren.


Bestalde, liburutegien arteko maileguari dagokionez
(LAM), urtez urte gora egiten ari da, 2024an 428.184
eskaera egin ziren, 2023an baino 61.925 gehiago, eta
horrek erakusten du zerbitzu hori Sarearen
erabiltzaileek gehien estimatzen dutenetako bat dela.
Sareko liburutegien funts bibliografikoa 29.876 titulu

berrirekin aberastu da, 218.061 ale sartu dira
katalogoan.

Horren ondorioz, Sarearen katalogoak eskaintzen
dituen tituluak 1.486.778 dira.

Sarearen iraunkortasunaren erakusgarri dira
katalogatu gabe alta ematen zaien aleen kopurua eta
liburutegien arteko mailegu-zerbitzua.

Eta, azkenik, 4.030.590 bilaketa egin dira OPACen,
692.249 bilaketa gehiago aurreko urteetan baino.




Gehien...

...irakurritakoak, ikusitakoak eta entzundakoak gaztelaniaz

Helduak



Haurrak



Gehien...

...irakurritakoak, ikusitakoak eta entzundakoak euskaraz

Helduak



Haurrak



The background of the image is a blurred photograph of a library. Rows of bookshelves filled with books are visible, receding into the distance. The lighting is warm and soft. Overlaid on the left side of the image is a large, stylized number '24' in a light blue-grey color. The number has a slight shadow and is partially cut off by the left edge. Above the number, the word 'Liburutegiak' is written in a bold, white, sans-serif font with a black outline. The text is positioned in the upper left quadrant of the image.

Liburutegiak

Liburuzainak egun baterako

Gotzone Butron Kamiruaga

Abusuko Udal Bibliotekako Arduraduna



“...batez beste berrogei
partaide izan ditugu urtero.”

Lau urte dira Abusuko Udal Bibliotekan (Arrigorriaga) eta Ibaialde Liburutegian (Bilbo) liburuzainak egun baterako programa martxan jarri genuela, Abusu Sarean-en “Abusu, auzo irakurlea” egitasmoaren baitan.

Lehen Hezkuntzako amaierako ikasleengana zuzendutako jarduera da, Abusu Ikastola eta Zamakola eskolako irakasleekin koordinatuta. Eskola orduetatik kanpo antolatzen dugu, beraz guztiz boluntarioa da; hala ere, batez beste berrogei partaide izan ditugu urtero.

Programaren helburu nagusia honako hau da: Abusuko haurrak institutura joan aurretik bibliotekarekin duten lotura afektiboa sendotzea, euren bizitzan erreferentea izan dadin. Saioetan ikasitakoa denborarekin ahaztu egingo dute seguruenik, baina berton izandako sentrazio atsegina luzaroan gordeko dutelakoan gaude.

Programan parte hartzeko, bi liburutegietako batean eman dezakete izena, asteko egun desberdinak aukeran, jakin badakigulako haur askok eskolaz kanpoko beste hainbat jardueratan parte hartzen dutela.



Ordu eta erdiko saioak prestatzen ditugu. Lehenik eta behin, liburuen ordena eta antolakuntza sistema erakusten diegu, eta txaplataren garrantzia. Gero, katalogoa erabiltzen irakasten diegu, eta altxorraren bila jokoaren antzera, katalogoan aurkitzen dituzten datuekin liburuak aurkitu behar izaten dituzte apalategietan, eta beste batzuk gorde. Eguneko maileguak eta itzulketak egiten dituzte, eta LAM bidez heldu diren liburuen kudeaketa. E-liburutegia erabiltzen irakasten diegu, eta garrantzitsuena: erabiltzaileak artatzen. Horrez gain, batzuek liburu berriak prestatzen dituzte, beste batzuek erosi beharreko liburuen zerrenda bat osatzen dute, kartel bat, poesiak aukeraketa bat, etab. Hau da, eguneko zereginaren bat burutzen dute.

Jendaurrean agertzeko kamiseta bana ematen diegu, eta ekainean, diplomak banatzeko ekitaldia izaten dugu gurasoekin.

“Egitasmoa auzo kohesiorako ere baliagarria dela esango genuke

Orain arteko esperientzia oso positiboa izan da, batetik, parte-hartzaileak oso harro sentitzen direlako bibliotekari zereginen, eta, bestetik, auzoko erabiltzaileek begi onez eta pazientzia handiz erantzun diotelako programari.

Orokorrean, antzeman dugu irakasleekin maiz datozen ikastaldeetako haurrak, eta, beraz, biblioteca eta bibliotekariok ezagutzen gaituztenak, izaten direla jardueran izena ematen duten gaztetxoak. Horregatik nabarmendu izaten dugu bisita hauen garrantzia



liburutegiak ezagutu eta erabiltzaile bilakatzeko prozesuan. Hala ere, badira beste ikasle batzuk, euren kabuz liburutegira etortzeko ohiturarik ez dutenak, baina programan gogoz parte hartu izan dutenak.

Eta, amaitzeko, egiaztatu dugu eguneko liburuzain bakoitzeko beste hainbat bisitari izaten ditugula: lagunak, amak, neba-arrebak, amamak... Beraz, esango genuke egitasmoa auzo kohesiorako ere baliagarria dela, erabiltzaileek askotan galdetzen baitute: “Gaur ez al dituzu laguntzaileak?”



Automailegu- sistema liburutegietan



Guretzat, denbora gauzarik baliotsuena den garai honetan, modu autonomoan jarduten dugu etengabe, azkartasunagatik, denbora irabazteagatik eta, sarritan, ilara luzeak itxaron behar ez izateko. Hori berori egiten dugu autozerbitzuko gasolindegietan edo supermerkatuetan, gauza pare bat soilik eroatera goazenean.


Modu berean, liburutegiek teknologia baliatzen dute erabiltzaileei automailegu zerbitzua emateko.

Azken batean, liburutegietan maileguak kudeatzeko era bat da, liburuzainaren esku-hartzerik gabeko sistema informatizatu baten bidez egiten dena, automailegu-makinak deritzona erabiliz. Izena gorabehera eta automailegu-zerbitzua edo antzeko hitzak erabiltzen ditugun arren, sistema horrek aukera ematen die erabiltzaileei liburuak, aldizkariak, filmak eta abar modu erosoan mailegatzeko eta itzultzeko, liburuzainaren mahaian itxaron gabe.

Aitzitik, ez du aukerarik ematen epea gaintitu duten maileguak berritzeko eta itzultzeko; beste erabiltzaile batek erreserbatutako dokumentuak maileguan ateratzeko, ezta erreserbak egiteko ere. Horrez gain, itzuli duzun ale bera eraman nahi baduzu, mailegu-mahaira joan behar duzu. Automailegu makinan itzultzen dituzun dokumentuak makina dagoen liburutegiari dagozkionak dira, eta ezin dira beste liburutegietako liburuak itzuli.

Jarraitu beharreko urratsak:


Kanpotik ikusita, automailegu makinak oso ezberdinak izan balitezke ere, erabiltzeko jarraitu beharreko urratsetan berdinak dira funtsean:



Lehenik eta behin, hizkuntza aukeratzen dut.



Mailegu bat edo itzulketa bat egin nahi dudana adierazten dut.



Jarraian, nire mailegu txartelaren barra kodea eskaneatzen dut (argi gorritik pasatzen dut).



Gero, dokumentuak banan-banan jarri behar ditut plataformaren gainean.



Dokumentuak itzuli baditut, normalean beste leku jakin batean utzi beharko ditut.



Azkenik, mailegu-agiria edo itzulketa-agiria inprimatu edo posta elektronikoz bidal diezaioket neure buruari.

Hori guztia edozein irakurle erabiltzailerren ikuspegitik. Zer esperientzia dute, ordea, liburutegietako profesionalek automailegu-sistemaren eguneroko jardunean? Zer iritzi daukate eta zer hausnarketa egiten dute liburuzainek horretaz?

“Sistema horrek aukera ematen die erabiltzaileei liburuak, aldizkariak, filmak eta abar modu erosoan mailegatzeko eta itzultzeko.



“Gainerako eremu profesionaletan bezala, liburutegien munduan ere gero eta presentzia handiagoa du automatizazioak. Modernizazio-prozesu horretan automailegu-zerbitzua nabarmentzen da.

Gure esperientziaren arabera, liburutegiko eraikineko bigarren solairuan makina horietako bat jarri zenetik hamar hilabete igaro direnean [2024ko apirilean], teknologia guztiek bezala, mailegatzeko sistemek abantailak eta desabantailak dituztela esan dezakegu.

Lehenengoen artean, aipatzekoa da erabiltzera ausartzen diren erabiltzaileek denbora gutxiago ematen dutela dokumentuak maileguan hartzeko eta itzultzeko prozesuan. Gainera, egindako eragiketaren tiketa lortzen dute, maileguaren erregistroa edo itzulketa berresten duena. Horrela, euren izapideak behar bezala egin direla baieztatzen dute.

Argi eta garbi dago teknologia orok modernitate kutsua ematen diola liburutegiari, eta erakargarriagoa egin dezakeela herritarrentzat, oro har, eta gazteentzat, bereziki.

Era berean, pribatutasun eta autonomia handiagoa bermatzen die erabiltzaileei, eta liburutegiko langileek denbora laburragoz dabilta balio erantsirik ematen ez duten zeregin mekanikoetan. Beraz, denbora gehiago dute beste lan batzuk egiteko, hala nola bildumaren kudeaketarako, irakurzaletasuna sustatzeko eta kultura zabaltzeko jardueren programazioa egiteko; baita mostradoreko kontsultak erantzuteko eta gestioak egiteko ere, eta horrek erabiltzaileen gogobetetzea areagotzen du.

Gure kasuan, bi solairuko liburutegia da. Ikasgela eta funts tematikoa dauden solairuan daukagun automailegu-zerbitzuak aukera ematen du beti mailegatzeko, itzultzeko edo mailegua berritzeko, espazio horretan liburutegiko langilerik ez dagoen uneetan. Gauza bera esan liteke azterketen garaiko ordutegi bereziei buruz (gauekoak eta asteburuetakoa), horietan ez baitago langilerik mailegu-zerbitzuan; izan ere, orain automailegu-sistemari esker izapide horiek erabiltzaileek egin ditzakete.

Desabantailei dagokienez, gogorarazi behar dugu beharrezkoa dela prestakuntzan denbora ematea, makina erabili nahi duten pertsonak hala eskatuta, eta beti ezin da hori egin. Gainera, bere konfigurazioa dela-eta, sistema ez da oso “lagunkoia” adinekoek erabiltzeko.

Nolanahi ere, automailegua motu propio erabiltzen duten pertsonak nabarmendu dute intuitiboa dela, eta, printzipioz, zerbitzuaren ezarpenarekin eta esperientziarekin pozik daudela.

Argi daukagu, bestalde, makinak ezin dituela liburutegiko langileak ordeztu, ez duelako aholkatzen, ez duelako libururik gomendatzen eta ez duelako jardueri eta programei buruzko informaziorik ematen. Hori gutxi balitz, erabiltzaileekin hain beharrezkoa den harreman zuzena mugatzen du. Horrela, konturatu gabe, liburutegi-zerbitzuari hainbesteko ekarpena egiten dion komunikazio-kanal pertsonalizatu bat desegin liteke. Zentzu horretan, liburutegiko langileek eguneroko zereginetan ematen duten hurbiltasuna eta maitasuna ezin izango ditu inoiz makinak ordeztu.

Nahiz eta sistema kasu gehienetan eraginkorra izan, gorabehera txikiren bat gertatzen denean, ziurgabetasuna eragiten du erabiltzaileengan, ez baitakite oso ondo nola jokatu: esate baterako, liburuak maileguan hartzeko zigorrak, dokumentu baten mailegua bigarren aldiz berritzeko arazoak, edo, irakurtzean, liburuaren txipek izaten dituzten akatsak, hondatuta edo gaizki konfiguratuta daudelako.

Gure ustez, liburutegi bakoitzak baloratu behar du automailegu-zerbitzua jartzeko pausoa hartzen duen, bere beharrei erantzuten dien ikusi eta alde onak eta txarrak kontuan hartu ondoren. Ermuko Udal Liburutegiaren kasuan, gure esperientzia nahiko ona da; horregatik, automailegurako beste zerbitzu bat jartzea baloratzen ari gara.

Etorkizunean, gero eta gehiago izango dira teknologia horrekin eroso ibiliko diren pertsonak, hasiera batean azkarra eta aseptikoa delako; baina, pertsona guztiek eroso sentitu behar dute liburutegiarekin eta liburutegiko zerbitzuekin, eta zalantzarik gabe, liburuzainaren mahaitik eskaintzen den arreta pertsonala nahiago duten asko ere izango dira. Teknologia, per se, ez da ez ona ez txarra; eman eta kendu egiten du. Liburutegiak eskaintzen duen zerbitzu berria da; langileen arreta ere eskatzen du, ordea. Egokiena elkarbizitza arrazionala da: makina gaitzetsi gabe eta, aldi berean, liburutegiko profesionalak ordeztu ditzakeela pentsatu gabe”.

Sara Gago
José Miguel Fernández
Ermuako Udal Liburutegia

Durangoko Bizenta Mogel
Liburutegia

2024ko María Moliner Sari Berezia

Durangoko Bizenta Mogel Liburutegiak 2024ko María Moliner Irakurketa Sustatzeko Kanpainaren sari berezietako bat jaso du. Sari hori Kultura eta Kirol Ministerioko Liburu, Komiki eta Irakurketaren Zuzendaritza Orokorak eman dio. Saria 10.000 eurokoa da, eta udal-liburutegiek irakurketa sustatzeko egiten duten lana eta kultura- eta hezkuntza-zentro gisa betetzen duten funtsezko zeregina nabarmentzen ditu.



Aurten, 50.000 biztanletik beherako udalerrietako liburutegien 650 proiektu inguru ebaluatu ziren, baina hamarrek baino ez zuten lortu sari berezia, eta horrek Bizenta Mogel Liburutegiak egindako lanaren kalitatea eta izandako garrantzia nabarmentzen ditu. Erakunde honek beste lau aldiz jaso zuen María Moliner saria, eta sari berri honek berretsi egiten du dinamizazio kulturalarekin eta komunitatean irakurtzeko ohitura zabaltzearekin duen konpromisoa.

Sari hau jaso duen proiektuaren izenburua hau da: "Bizenta Mogel Biblioteka Bidaiak: jakintzen eta esperientzien mordo osorako sarrera ". Bere proposamen berritzailea liburutegiaren ohiko programazioa murgiltze-esperientzia bihurtzean datza, bidaia-agentzia bat izango balitz bezala. Bertan, parte-hartzaileek ezagutzaren hainbat arlo esploratu ditzakete jarduera tematikoen, tailer espezializatuen eta irakurketa-kluben bidez.

Ikaskuntza-esperientzia paregabeak sortzeko duen gaitasuna da proiektuaren alderdi garrantzitsuenetako bat, liburutegi baten ikuspegi tradizionaletik aldenduz, liburuak kontsultatzeko eta mailegatzeko espazio soil gisa. Horren ordez, Bizenta Mogel Liburutegia kultur esperimentaziorako zentro bihurtu da, non erabiltzaileak modu ludiko eta parte-hartzailean murgildu baitaitezke jakintzaren hainbat eremutan.

Liburutegiak proposatzen dituen bidaia tematikoei esker, parte-hartzaileek hainbat arlo ezberdin esploratzen dituzte. Jarduera horiek adituen topaketekin, sormen-tailerrekin eta irakurketa-saioekin osatzen dira, jakinmina eta elkarlaneko ikaskuntza sustatzeko.

Proiektu hori urte askotan garatu da, adin guztietarako inklusiboa izateko eta pixkanaka hainbat gai jorratzeko premiarekin. Hala, urtero gai nagusi bat

“Bizenta Mogel Biblioteka
Bidaiak: jakintzen eta
esperientzien mordo
osorako sarrera”



aukeratzen da ardatz gidari gisa, eta horren inguruan hainbat jarduera antolatzen dira.

Era berean, helburu nagusia herritarren bizi-kalitatea hobetzea eta ezagutzarako sarbidea sustatzea da. Liburutegiak komunitatearen barruko funtsezko zerbitzua direnez, funtsezkoa da horrelako proiektuak bultzatzea; izan ere, komunitatearen erantzuna oso positiboa izan da, eta jarduerak parte-hartze handia izaten dute. Hala ere, arrakasta hori ez da berehalakoa izan, etengabeko lan-urteen emaitza baizik.

Proiektuaren erronka nagusia hedapena da, funtsezkoa baita herritarrek haren garrantzia ulertzea eta aktiboki parte hartzea. Proiektuaren erronka nagusia hedapena da, funtsezkoa baita herritarrek haren garrantzia ulertzea eta aktiboki parte hartzea; liburutegiaren helburu nagusia pertsonen eguneroko bizitzara hurbiltzea da, jarduera ugari biltzen dituen espazio dinamikoak direla erakutsiz. Hala eta guztiz,

gazteak erakartzea da oraindik erronka garrantzitsuenetako bat.

Bizenta Mogel Liburutegiak adierazi du oso pozik dagoela saria jasotzearekin; izan ere, saria pizgarria da Durangoko bizitza kulturala aberastuko duten ekimenak garatzen jarraitzeko. Liburutegiak, beraz, ezagutza eta kulturarako sarbide librea sustatzeko funtsezko eragile gisa duen eginkizuna berresten du.

Gainera, sariak udal-liburutegiek herri txikiagoetan duten garrantzia azpimarratzen du, eta erakusten du liburu-maileguen funtzioa betetzeaz gain, ikaskuntza, sormen eta parte-hartze sozialerako benetako epizentroak izan daitezkeela.

Aitorpen horrekin, Bizenta Mogel Liburutegiak indartu egiten du ezagutzarako sarbide unibertsalarekin, irakurketaren sustapenarekin eta espazio inklusibo eta parte-hartzaileak sortzearekin duen konpromisoa. Urteetan zehar, garai berrietara egokitzen jakin du, bere jardueretan teknologiak, metodologia berritzaileak eta diziplina anitzeko ikuspegiak integratuz.

2024ko María Moliner Sari Bereziak liburutegiko taldearen ahalegina eta dedikazioa aitortzeaz gain, inspirazio gisa ere balio du irakurketa eta kultura sustatzeko berrikuntza bilatzen duten beste erakunde batzuentzat.

Azken batean, sari honek Bizenta Mogel Liburutegiaren iragana eta oraina ospatzeaz gain, etorkizunerako aukera berriak ere eskaintzen ditu, Durangoko erreferente kultural gisa duen posizioa sendotuz.



“*Saria pizgarria da Durangoko bizitza kulturala aberastuko duten ekimenak garatzen jarraitzeko.*”

Agur t'erdi

María José Cabria

Artxibozain-bibliotekaria
Balmasedako Udal Liburutegia.

“*Udal funtzionarioa naizen aldia amaitu den arren, liburutegiarekiko eta irakurketarekiko maitasunak aurrera jarraituko du.*”

Lanbide eder honetan lan egin ondoren, agur esateko unea iritsi da, erretiroa hartzeko adinera iritsi naizelako eta zorioneko sentitu naizelako horregatik. Asko gozatu dut gure Balmasedako Hiribildu maiteko artxibozain-bibliotekaria izanik.

Eskerrik asko profesional handiekin lan egiteak ekarri duen opariagatik, bai eta gure Udaleko funtzionarioekin eta kargu publikoekin ere, batez ere Kultura Zinegotzigoa izan dutenei.

Eta, nola ez, erabiltzaileen begirada arretatsua nabarmendu behar da: ikertzaileak, tokiko adituak eta 0 eta 89 urte bitarteko irakurzaleak. Haien arreta da gure Zerbitzu Publikoaren lehentasuna, adin eta egoera guztietako pertsonentzako espazio inklusibo eta aberasgarria eskaintzen baitu.

Udal funtzionarioa naizen aldia amaitu den arren, liburutegiarekiko eta irakurketarekiko maitasunak aurrera jarraituko du. Txikitatik izan naiz irakurle, Hiriko lehen Udal Liburutegi Publikoan hasita, 1958. urteaz geroztik (1957ko apirilaren 26ko M.M.), Bedia ospetsuaren omenez, Celemín zubian, zuhaitz potoloaren aurrean, horma-pintura bikainekin apainduta, Roberto Rodet Villaren oparia.

Anastasio García izan zen lehen liburuzaina; Mercedes Martínek hartu zuen lekukoa, eta 1988ko urtarrilaren 11tik hona, ohore handiz, kate honen hirugarren katebegia izan naiz, hau da, "katea ez da eten".

Aurrerantzean, oraingo Kultur Etxera – lehenago “Eskola Publikoak” izandakoetara – 2006an lekuz aldatu ziren "Martin de los Jasoko" artxiboan edo "Enrique Bedia" liburutegi zabal eta argitsuan ikusiko dugu elkar, edo beraien jolastokian, edo San Juan plazan, non haurrak beti alai ibili baitiren.

Beno, adiorik ez!



Liburutegiak

Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak argitaratua.
Posta elektronikoa: **liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus**

© 2025

